



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

www.donostia-kultura.eus

## BENJAMÍN PRADO IDAZLEAK “TODO LO CARGA EL DIABLO” BERE AZKEN LIBURUA AURKEZTUKO DU

### SAN TELMO MUSEOA

Urriak 21

19:30

Urriaren 21ean, asteazkena, iluntzeko 19:30ean, **Benjamín Prado** idazleak *Todo lo carga el diablo*, bere azken eleberria aurkeztuko du San Telmo Museoan. Juan Urbano serieko bosgarren liburukia da, Espainiako historian gertatutako desagertze bat ikertzen ari den detektibe-idazle-irakaslea.

[\*\*Amaia Garcíak\*\*](#) egilea aurkezu eta elkarrizketatuko du. Ekitaldian parte hartu ahal izateko [aldez aurretik izena eman behar da](#) Donostia Kultura edo San Telmo Museoko webguneetan.

Aurkezpena Donostia Kulturak, Koldo Mitxelena Kulturuneak eta Tabakalerak urtero antolatzen duten Liburutegien Egunerako jarduera osagarrien programaren barruan kokatzen da.

### Benjamín Prado

Benjamín Prado (Madril, 1961). Idazlea, nobelak, saiakerak eta poesia idazten ditu. *Raro* (1995) bere lehen eleberria Spainian zein Latinoamerikan zabaldu zen, eta Mexikon, Argentinan eta Kolonbian harrera bikaina izan zuen. 1996an *Nunca le des la mano a un pistolero zurdo* eta *Dónde crees que vas* eta *quién te crees que eres* nobelak argitaratu zituen. Azken hau, gazteei zuzendutakoa da eta metafikzioaren paradigmatzat jotzen da. Nobelaz gain, *Jamás saldré vivo de este mundo* (2003) liburua argitaratu zuen, eta zenbait ipuinetan idazle gonbidatuek parte hartu zuten: Juan Marsé, Javier Marías, Almudena Grandes eta Enrique Vila-Matas.

Poesiari dagokionez, kulturalismotik hurbil kokatu izan da Pradoren estiloa eta 99ko belaunaldiko kidetzat jotzen da, Aurora Luque, Amalia Bautista eta Vicente Gallegorekin batera. Argitaratutako liburu artean, azpimarragarriak dira besteak beste: *Un caso sencillo* (1986), *El corazón azul del alumbrado* (1990), *Asuntos personales* (1991), *Cobijo contra la tormenta* (1995), *Todos nosotros* (1998), *Iceberg* (2002), *Marea humana* (2006) eta *Ya no es tarde* (2014), *Acuerdo verbal* (2018) liburuan batera argitaratuak. Aforismoak ere idatzi ditu *Pura lógica* (2012), *Doble fondo* (2014) eta *Más que palabras* (2015). Bestalde, Joaquín Sabina musikarekin batera *Incluso la verdad* (2017) liburua.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)

Saiakera alorrean beriz, hainbat liburu idatzi ditu: *Siete maneras de decir manzana* (2000), *Los nombres de Antígona* (Aguilar, 2001), *A la sombra del ángel. Trece años con Alberti* (Aguilar, 2002) y *Romper una canción* (Aguilar, 2010).

Pradoren argitalpenak nazioartean itzuliak izan dira: Estatu Batuak, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Grezia, Danimarka, Portugal, Belgika, Kroazia, Estonia, Lituania, Hungaria, Argentina, Mexiko, Peru, Kuba, Salvador, Kolonbia...

### **Todo lo carga el diablo**

*Todo lo carga el diablo*, “Los casos de Juan Urbano” serieko bosgarren eleberria da,

*Mala gente que camina* (2006), *Operación Gladio* (2011), *Ajuste de cuentas* (2013) eta *Los treinta apellidos* (2018) liburuen ondorengoa. Enigma berri honetan Urbano detektibeidazle-irakaslea Bigarren Errepublikaren azken egunetan gertatutako kirolari emakume baten desagertzea ikertzen arituko da.

### **Idazlanen zerrenda**

#### **Poesía**

- Un caso sencillo, 1986
- El corazón azul del alumbrado, 1991
- Asuntos personales, 1992
- Cobijo contra la tormenta, 1995
- Todos nosotros, 1998
- Ecuador (poesía 1986-2001), 2002
- Iceberg, 2002
- Marea humana, 2006
- Ya no es tarde, 2014

#### **Nobela**

- Raro, 1995
- Nunca le des la mano a un pistolero zurdo, 1996
- Dónde crees que vas y quién te crees que eres, 1996
- Alguien se acerca, 1998
- No sólo el fuego, 1999
- La nieve está vacía, 2000
- Mala gente que camina, 2006
- Operación Gladio, 2011
- Ajuste de cuentas, 2013

#### **Saiakera**

- Siete maneras de decir manzana, 2000
- Los nombres de Antígona, 2001
- Romper una canción, 2009

#### **KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN**

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)